



Arartekoaren 2023R-2703-22 Ebazpena, 2023ko abenduaren 21ekoa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio berrius dezala Gaztelagun programaren alokairurako laguntza baten sortzapen-data.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar baten kexa izapidetzea onartu zuen. Kexan, herritarrak adierazi zuen ez zegoela ados Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzaren sortzapen-datarekin.

Zehazki, kexagileak idazkian adierazi zuenez, 2022ko maiatzaren 20an telematikoki formalizatu zuen Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntza aitortzeko eskaera. Eskaeran bertan, jakinarazpenak ohiko postaz jaso nahi zituela adierazi zuen.

Eskaera aurkezteko unean, kexagilea Galdakao udalerrian bizi zen, baina Bilbora mugitu zen eskaera ebatzi aurretik.

Kexagileak bidalitako dokumentazioan, eskaeraren espediente-zenbakia eta ebazpena ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea (hiru hilabetekoa) jasotzen ziren.

Eskaera aurkeztu zuenetik bost hilabete inguru igaro ondoren (zehazki, 2022ko urriaren 27an), Alokabide sozietate publikoaren mezu elektronikoko bat jaso zuen, honako dokumentazio hau aurkezteko eskatuz:

- *“El doc. de Alta de 3º. (...)*

- *Certificado o certificados de empadronamiento de la/las viviendas en las que has estado los últimos 6 meses inmediatamente anteriores a la solicitud de la ayuda (en cualquier municipio de la CAPV). “*

Gaztelagun programaren helbide elektronikotik igorritako posta elektronikoko arabera, hiru egun besterik ez zituen dokumentazioa aurkezteko.

Posta elektronikoko bidez egindako dokumentazio-errekerimenduari erantzuteko, kexagileak urriaren 31n aurkeztu zuen hirugarrenen alta. Ondoren, azaroaren 2an, errolda-ziurtagiria aurkeztu zuen.

Azaroaren 2an, baina, beste zuzenketa-errekerimendu bat egin zioten aurrez aurre, eta 10 eguneko epea eman zioten laguntza eskatu aurre-aurreko sei hilabeteetako errolda-agiriak aurkezteko.





Azkenik, 2022ko azaroaren 17an, Bizkaiko Etxebizitza lurralde-ordezkariek alokairurako laguntza onartzeko eskaera egin eta hiru hilabeteko epea igaro ondoren erabaki zuen laguntza ematea: 275 euro hilabetean, 2022ko abenduaren 1eko sortzapen-datarekin. Ebazpena 2022ko abenduaren 5ean jakinarazi zioten kexagileari.

2. Alokabide sozietate publikoak egindako izapideekin ados ez zegoenez eta Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza prestazioa onartzen luzatu zenez, kexagileak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen 2022ko abenduaren 21ean, Etxebizitzako sailburuordearen aurrean.

Idazkian, kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados prestazioaren sortzapen-datarekin. Horri buruz, esan zuen 2022ko maiatzaren 20an egin zuela eskaera eta bost hilabete inguruan ez zuela jaso zuzentzeko errekerimendurik.

Hori dela-eta, eskatu zuen kontuan har zedila eskaera 2022ko maiatzaren 20an formalizatu zuela eta bost hilabete igaro arte ez ziotela inolako dokumenturik eskatu.

Halaber, kexagileak Arartekoari adierazi dionez, administrazioak errekurtsua ebazteko zuen epea igarota ere, ez zuen erantzunik jaso.

3. Azaldutako egitateak ikusita, 2023ko maiatzaren 30ean, Arartekoak lankidetzak eskaera igorri zuen Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailera.

Idazkian, Arartekoak informazioa eskatu zuen, Alokabide sozietate publikoak Gaztelagun programaren alokairurako dirulaguntza izapidetzean egindako jarduketei buruz.

Era berean, Arartekoak galdetu zion zergatik atzeratu zen eskaera izapidetzen, zergatik kexagileak ez zuen gora jotzeko errekurtsuari emandako erantzunik jaso eta zergatik jakinarazi zioten zuzentzeko errekerimendua posta elektronikoz lehendabizi.

Bestetik, galdetu zion zergatik Alokabide sozietate publikoak behin baino gehiagotan eskatu zion kexagileari errolda-agiria, administrazio jarduleak berak bere kabuz lortu ahal bazuen.

Modu gehigarrian, Alokabide sozietate publikoari egotzitako eginkizunak gogorarazi zituen Arartekoak, sozietatearen beraren estutuak oinarri hartuta, eta administrazio-prozedura orok izan behar dituen bermeen berri eman zuen.

Azkenik, Arartekoak espedienteko dokumentu guztien kopiak bidaltzeko eskatu zuen.





4. Arartekoak ez zuen erantzunik jaso, eta, hortaz, 2023ko uztailaren 7an, errekerimendu bat helarazi zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, berariaz erantzun behar zuela gogoraraztearekin batera.
5. Azkenik, egindako informazio-eskaerari erantzunez, 2023ko uztailaren 17an, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren kabineteko zuzendariaren erantzuna sartu zen erakunde honen erregistrora, eta, horrekin batera, Alokabide sozietate publikoaren Arreta, Etxebizitza Aldaketa eta Prestazioen Ataleko zuzendariak egindako txosten bat erantsi zen.

Laburbilduz, Alokabidek berretsi du kexagileak 2022ko maiatzaren 20an eskatu zuela dirulaguntza aitortzeko. Dena dela, esan duenez, kexagileak eskaerarekin batera aurkeztu zuen errolda-agiriarekin bakarrik ez zen egiaztatzen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren (Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzak arautzen dituenaren) 5.2 artikulua, zeinak eskatzen baitu eskaera egin aurreko sei hilabeteetan benetan bizi behar dela Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Halaber, ikusi zuen kexagileak aurkeztutako dokumentazioak ez zuela hirugarrenen alta-agiria jasotzen.

Zentzu horretan, Alokabideren Arreta, Etxebizitza Aldaketa eta Prestazioen Ataleko zuzendariak adierazi du dokumentazioa aurkeztea eskatzen dutela, bakar-bakarrik dokumentazio hori elkarreraginean lortu ezin bada. Hala, uste du aipatutako betekizuna ezin zitekeela bide horretan lortu. Zehazki, adierazi du erroldari buruzko informazioa udalerrri jakin batekin harremanetan jarriz bakarrik lor daitekeela eta, Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzen kasuan, alokatutako higiezinaren udalerrria dela hori. Beraz, kexagilearen errolda sei hilabete baino gutxiagokoa zela egiaztatu zutenean, errekerimendua egin zuten.

Hori dela-eta, adierazi duenez, 2022ko urriaren 27an, hasierako eskaera egin eta bost hilabete baino gehiago igaro ondoren, Alokabidek dokumentazioa eskatu zion kexagileari, posta elektronikoz. Halere, esan du bitarteko horrek ez duela ordezkatzeko kexagileari gero bidalitako dokumentazio-errekerimendua.

Azkenik, txostenak jasotzen duenaren arabera, garaiz kanpokotzat jo zen kexagileak 2022ko abenduaren 21ean jarritako gora jotzeko errekurtsioa, 2022ko abenduaren 5ean jakinarazitako aitorten-ebazpenaren kontrakoa, eta 2023ko maiatzaren 24an eman zioten horren berri kexagileari.

6. Hortaz, egitate eta zuzenbide-oinarri nahikoak daudela uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:





Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1 artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1 artikulua), bai Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunak (34.3 artikulua), bai eta Europako Gutun Sozialak berak (31. artikulua) ere, etxebizitzak alderdi soziala duela azpimarratu izan dute, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriz agerian utzi du herri agintariak premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen-eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari loturiko oinarriko eskubideak bermatzeko¹.

2. Barne-mailan, Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan jasota dago etxebizitzagaitan eskumena duten botere publiko guztien jardunari buruzko agindua edo gidalerroa. Hain zuzen ere, mandatu konstituzional horrek administrazio publikoak behartzen ditu, maila desberdinetan, beharrezko baldintzak sustatzera eta etxebizitza duin eta egoki bat gozatzeko eskubidea behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren arauak ezartzera; zehazki, lurzorua erabilera arautzera, espekulazioa ekiditeko interes orokorraren arabera.

Laburbilduz, arau konstituzional horrek herritarraren jarrera juridikoa bermatzen du; izan ere, bizitzeko leku baten beharra dute.

Espainiako Konstituzioaren 148.1.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.31 artikuluan xedatzen den eskumen-banaketaaren arabera, etxebizitza-arloko eskumen osoa dauka EAEk.

3. Zentzu horretan, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planak² berariaz ezarri zuen gazteen emantzipazioa sustatzera bideratutako formula eta neurri berriak garatzeko beharrezana.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak lehenengo aldiz arautu zituzten oinarriak onetsi zituen 2018ko abenduaren 18an. 2019ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean, eta, hasiera batean, 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldietarako dirulaguntzen aldi baterako programa izatera mugatu ziren, zeuden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

¹ **Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.** Besteak beste, 2013ko martxoaren 14ko Epaia (C-415/11) eta 2016ko abenduaren 21eko Epaia (Sala Nagusia; gai metatuak: C-154/2015, C-307/2015 eta C-308/2015).

² **Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.** 2018-2022 aldirako Gida Plana. Eskuragarri hemen: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovad01/eu/contenidos/informacion/ovv_pdv_2018_2020/eu_def/index.shtml





Nolanahi ere, ikusita gazteen etxebizitza-premia gero eta handiagoa dela, etxebizitza-parke publiko eskasa dagoela eta merkatu librean dauden etxebizitzak eskuratzeko zailtasunak daudela, 2022ko apirilaren 26ko Aginduak behin betiko bihurtu zituen Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Gazteen Euskal Behatokiak azterlan bat argitaratu zuela 2022ko abenduaren 27an³. Azterlan horretan ondorioztatzen denez, gordailututako alokairu-kontratuen fidantzen batez besteko zenbatekoa kontuan hartuta, EAEn 18-34 urte arteko gazte soldatadun batek soldataren % 51,1 gastatu behar du alokairuan (Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Alokairu Merkatuaren Estatistikak fidantzen zenbatekoa jasotzen du).

Gainera, azterlanak agerian uzten du esfortzu bereziki nabarmena egiten dutela 25 urtetik beherakoek, hileko soldataren % 72,6 gastatu behar baitute alokairua ordaintzeko.

4. Aurretik azaldutakoa ikusita, eta gazteek etxebizitza bat eskuratzeko orduan dituzten zailtasun handiak kontuan hartuta, Arartekoak ondo baloratzen ditu Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak esparru horretan hartu dituen sustapen-neurriak, emantzipazioan laguntzeko helburua duten aldetik.

Alabaina, Gaztelagun programaren alokairurako laguntzen erregulazioa eta laguntzok izapidetzeko atzerapena oztopo handia izaten ari dira programa horrek dituen helburuak bete-betean lortu ahal izateko.

5. Arartekoak egiaztatu du Alokabide sozietate publikoa dela, administrazio-zuzenbidearen mende, Gaztelagun programaren alokairurako laguntzaren izapidea behar bezala bultzatzeko arduraduna. Izan ere, 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 9.2 artikulua erakunde laguntzailearen izaera aitortzen dio, eta honako jarduketa hauek esleitzen dizkio:

- *“Aurrez aurreko informazio, orientabide eta aholkularitza indibidualizatua ematea, interesdunek eskabideak behar bezala bete ahal izan ditzaten, behar den dokumentazioa erantsita.*
- *Eskabideak jasotzea eta baldintzak betetzen direla ziurtatzea.*
- *Etxebizitzako lurralde-ordezkaritari eskaeren ebazpena eta ebazpenaren edozein aldaketa proposatzea.*

³ **Gazteen Euskal Behatokia - Observatorio Vasco de la Juventud.** Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2021. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/egb-emantzipazioa/>



- *Laguntzak ordaintzea.*
- *Pertsona onuradunek eginbeharrak betetzen dituztela ziurtatzea”.*

Testuingurua hori izanik, erakunde laguntzaileei esleitutako eginkizunei buruz mintzatu zen Euskadiko Aholkularitza Juridikoaren Batzordea, 18/2007 irizpenean. Are, egindako analisian jada ohartarazi zuen erakunde laguntzaileek ezin dituztela ahalmen publikoak baliatu:

- *“no podrán ejercer las funciones estrictamente administrativas como son otorgar plena relevancia jurídica a la fecha de recepción de solicitudes (artículo 38.4 LRJPAC), requerir la subsanación de solicitudes (artículo 71 LRJPAC) y notificar actos administrativos (artículo 58 y siguientes LRJPAC). Dichas funciones solo pueden ser desempeñadas por órganos administrativos o personal funcionario a su disposición.”⁴*

Orain arte azaldutakoa nahikoa ez bada, Arartekoak, kexaren izapidean egiaztatu den moduan, ikusi du Alokabide sozietate publikoak “instrukzio-organoaren” kondizioa hartzen duela Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak izapidetzear.

Hain zuzen ere, Arartekoak, azaroaren 11ko 2022R-1393-21 Ebazpenean⁵ eta abuztuaren 8ko 2023R-1137-23 Ebazpenean⁶, iritzia eman ahal izan zuen Alokabide sozietate publikoari dirulaguntzak izapidetzeko esleitutako eginkizunei buruz.

Hitz batez, Arartekoak egiaztatu egin du sozietate publikoa, instrukzio-organo gisa, administrazio-ahalmen bat baliatzen ari dela Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzak izapidetzear. Sozietatearen estatutuek ahalmen hori baliatzea debekatzen diote Alokabideri, aipatutako ebazpenetan azaldu zen bezala.

6. Hizpide dugun gaia aztertzen jarraituz, Arartekoak oso ondo ezagutzen du Auzitegi Gorenak apirilaren 12ko 469/2023 Epaian⁷ ezarritako azken jurisprudentzia. Erabilitako argudio juridikoa zalantzan jarri bada ere⁸, azpimarratu behar da

⁴ **Euskadiko Aholkularitza Juridikoaren Batzordea.** 18/2007 irizpena. 144/2006 kontsulta, Arte Plastikoen eta Diseinuko prestakuntza-zikloetan praktikaldia enpresetan, estudioetan edo tailerretan egiteko fasea arautzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa. Eskuragarri hemen: www.comisionjuridica.euskadi.eus

⁵ **Arartekoa.** Arartekoaren 2022R-1393-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 11koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen dio berrius dezala Alokabide sozietate publikoak bizitegi-bazterketa larrian daudenentzako alokairu-laguntzen deialdi batean egindako jarduketa. Eskuragarri hemen: www.ararteko.eus

⁶ **Arartekoa.** Arartekoaren 2023R-1137-23 Ebazpena, 2023ko abuztuaren 8koa. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio berrius dezala Gaztelagun programaren alokairurako laguntza batengatik sortutako zenbatekoa. Eskuragarri hemen: www.ararteko.eus

⁷ **Auzitegi Gorena.** 469/2023 Epaia, apirilaren 12koa. [[ECLI:ES:TS:2023:1613](https://www.boe.es/eli/es/ts/2023/1613)].





aipatutako erabaki judizialean jasotako gertakarien kontaketa ez datorrela bat kexa honetan aztertutakoarekin.

Auzitegi Gorenaren irizpenean adierazitakoaren kontra, ebazpen honetan aztertu den kasuan Alokabide ez da mugatzen laguntza zehatz bat edota egoeraren araberrako laguntza bat ematera. Izan ere, instrukzio-organo gisa dituen ahalmenak jarduketa guztietara hedatzen dira, Gaztelagun programaren dirulaguntzak aitortzeko nahitaezko administrazio-prozedura agintzen, bideratzen eta bultzatzen baitu.

Alde horretatik, ez da ahaztu behar, lehen azaldu den bezala, Alokabide 2019ko urtarrilaren 1ean hasi zela laguntzen programa kudeatzen, eginkizun horiek urtero bete dituela eta, gaur egun, programa iraunkorra dela.

Hortaz, aipatutako epaiaren edukia ikusita eta harekin batera doan boto partikularra kontuan hartuta, Arartekoak errepikatu egingo du Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eska dezakeen laguntzak ez dizkiola Alokabideri eskualdatzen Gaztelagun programa antolatzeko, bideratzeko eta bultzatzeko administrazio-ahalmen guztiak.

7. Testuinguru zehatz honetan, eta Alokabideri Gaztelagun programaren alokairurako dirulaguntzak izapidetzeko eman zaizkion ahalmenak aztertu ondoren, Arartekoak uste du arreta jarri behar dela kexagileak egindako eskaera izapidetu eta aitortzeko izandako atzerapenean.

2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 13.4 artikulua jasotzen du Etxebizitzako lurralde-ordezkariek eskaera egiten denetik hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi behar duela erabakia. Dena dela, behin betiko ebazpena emateko epea eten ahalko da, baldin eta zuzentzeko epe bat irekitzen bada; eskatzaileari jakinarazpena egin eta hark eskatu zaion dokumentazioa aurkeztu bitartean luzatuko da etenaldia.

Bada, kexagileak 2022ko maiatzaren 20an eskatu zuen dirulaguntza aitortzeko. Alabaina, eman diguten informazioaren arabera, Alokabide sozietate publikoa ez zen hasi laguntza izapidetzen 2023ko urriaren 27ra arte, egun hartan posta elektronikoko bat bidali baitzion kexagileari, hiru eguneko epean dokumentazioa aurkez zezan eskatzeko. Hau da, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek erabakia ebatzi eta jakinarazteko zuen gehieneko epea baino beranduago hasi zen laguntza izapidetzen.

Guztiarekin ere, kexagileak eskatu zizkieten dokumentuak aurkeztu zituen 2022ko urriaren 31n eta azaroaren 2an. Azaroaren 2an, sozietate publikoaren Arreta eta Prestazioen Atalak aurrez aurre jakinarazi zion zuzentzeko errekerimendua. Azkenik, 2023ko azaroaren 17an, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek

⁸ José Ramón Chaves García. Auzitegi Gorenak atea irekitzen dizkio sozietate publikoetako langile lan-kontratudunek administrazio-prozedurak kudeatzeari. Eskuragarri hemen: www.delajusticia.com



prestazio ekonomikoa aitortu zuen, eta 2022ko abenduaren 1eko sortzapen-data jarri. Hau da, eskaera egin eta bost hilabete pasatxo beranduagoko data bat. Arartekora bidalitako dokumentazioaren arabera, ebazpen hori 2022ko abenduaren 5ean jakinarazi zioten kexagileari.

Laguntzaren sortzapen-data 2022ko abenduaren 1a zela justifikatzeko, Alokabidek esan du eskaerak pilatzeak eta baliabide nahikorik ez edukitzeak hiru hilabetez baino gehiagoz atzeratzen dituela espedienteen epeak.

Horrenbestez, oso garrantzitsua da kasu honetan administrazio-prozedura – bidegabeko atzerapenak saihesteko eta, horrela, alokairurako laguntza guztiz gozatuko dela bermatzeko– behar bezala antolatu, bideratu eta bultzatu ote den egiaztatzea.

8. Arartekoak gogorarazten du administrazio publikoek objektibotasunez ematen dietela zerbitzu interes orokorrei, eta fede onaren eta bidezko konfiantzaren printzipioen arabera jokatu behar dutela.

Hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua berariaz ezartzen du administrazio publikoaren jardunak objektibotasunez betetzen dituela interes orokorrak eta, besteak beste, eraginkortasun- eta koordinazio-printzipioen arabera jarduten duela, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.

Horretarako, administrazio publikoek bete egin behar dute legeetan xedatutakoa, baita araudi aplikagarriaren babesean egindako eskaerak eta erreklamazioak epearen barruan eta berariaz ebazteko betebeharra ere (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua).

Era berean, bizkortasun-printzipioarekin bat etorritik, ardura duen administrazio-unitatearen titularrak ofizioz bultzatu behar ditu hala eskaerak, nola erreklamazioak, eta anormaltasun edo atzerapen oro saihesteko behar diren neurriak eman behar ditu (APELen 71. artikulua).

Are gehiago, kontuan hartu behar da *“administrazioak arduraz bultzatu behar dituela”*⁹ dirulaguntzei lotutako administrazio-prozedurak; hau da, administrazioek arreta berezia jarri behar dute mota horretako prozeduretan.

lido horretatik, gaiak bideratzeaz arduratu behar duten administrazio publikoetako langileek eta instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena duten administrazio-organoetako titullarrek, bakoitzak bere eskumen-esparruan, erantzukizun zuzena dute berariazko ebazpena epe barruan emateko, legez ezarrita dagoen eginbeharra bete dadin.

⁹ Galiziako Justizia Auzitegi Nagusia. 1266/2012 Epaia, azaroaren 14koa. [[ECLI:ES:TSJGAL:2012:9212](#)].



9. Kasu honetan, Alokabide sozietate publikoak administrazio-izapidean justifikatu gabe izandako atzerapena ez dator bat administrazioaren jarduketa arautu behar duten printzipioekin; izan ere, dokumentazioa berandu aztertu zuten, eta, antza denez, ebazpena eman eta erabakia jakinarazteko epea amaitu eta bi hilabete beranduago egin zuten errekerimendua.

Gainera, Gaztelagun programaren alokairurako laguntza aitortzeko eskaeraren izapidea ez bultzatzeak eragin du sortzapena justifikatu gabe atzeratzea eta jaso beharreko zenbatekoa baldintzatzea. Horrek programaren helburu nagusiari kalte egiten dio, hau da, gazteei merkatu libreko etxebizitza baten alokairua ordaintzen laguntzeari eta, bide batez, emantzipazioan laguntzeari.

Egia da araudiak ez duela une zehatz bat finkatzen interesdunari eskatzeko faltan duen dokumentazioa zuzendu dezala. Alabaina, zerbitzu publikoa behar bezala emateko estandar gisa hartzen badugu prozedura ebazteko ezarrita dagoen gehieneko epea (hiru hilabete), zuzenketa eskatzeko bost hilabete baino gehiago igaro izanak zeharo gainditzen du behar bezala aritzeko eskatu behar den estandarra.

Arartekoaren iritziz, eskaera eta eskaerarekin batera doan dokumentazioa egiaztatzeko faseak laburra izan behar du, helburu mugatua duen aldetik, eta ez du zertan luzatu, ebazteko epeak erabat gainditzera arte.

Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, prozedura bera ebazteko epea gainditu ondoren egin da balizko zuzenketa-eskaera, eta, beraz, zerbitzua ez da ona izan, kalte kuantifikatu bat eragin baitu: kexagileak ez du jaso eskaera epean ebatzi izan balitz egokituko litzaiokeen laguntza ekonomikoa (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. artikulua).

Laburbilduz, sozietate publikoari egotzi behar zaio kexagileari legez jasan behar ez duen kalte bat eragin izana, zeina arrazoizko marjinetatik kanpo baitago. Horregatik, eragindako kaltearen ondorioz, erantzukizuna administrazioarena dela adierazi beharko litzateke.

Arartekoak azpimarratu nahi du administrazioak ezin duela abantailarik lortu bere betebeharrak ez betetzeagatik. Ildo horretatik, Auzitegi Gorenaren otsailaren 27ko 299/2018 Epaia¹⁰ hauxe ondorioztatu zuen jada:

- *"Las consecuencias adversas de ese proceder indebido debe afrontarlas la Administración con arreglo al principio jurídico general que impide a los sujetos de derecho beneficiarse de sus propias torpezas o incumplimientos, condensado en el aforismo latino `allegans turpitudinem propriam non auditur`."*

¹⁰ **Auzitegi Gorena.** 299/2018 Epaia, otsailaren 27koa. [[ECLI:ES:TS:2018:704](#)].

Bestela esanda, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ezin du onartu prestazioa eskaera zuzendu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera ordaintzeko erabakia, Alokabide sozietate publikoak izapidea justifikaziorik gabe atzeratu izana baita gaitzetsi beharreko jokabidea.

10. Bestalde, Alokabideren Arreta, Etxebizitza Aldaketa eta Prestazioen Ataleko zuzendariak Arartekoari adierazi zionez, udalerrri jakin batekin harremanetan jarriz lortzen da eroldari buruzko informazioa, eta, Gaztelagun programaren kasuan, errentan hartutako higiezinaren udalerrria da hori. Era berean, txostenaren arabera, udalerrri guztiei egin beharko zitzaiekeen kontsulta eroldaren betekizuna egiaztatzeko. Eta alderdi hori ez da bideragarria, ez teknikoki, ez prozeduraren aldetik, udalerrri jakin batera mugatzen ez delako.

Zentzu horretan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.2 artikulua, administrazio publikoen printzipio orokorren artean, honako betebeharrak ezartzen du: *“beren artean eta beren organoekin, organismo publikoekin eta haiei lotutako nahiz haien mendeko entitateekin harremanetan jartzeko, baliabide elektronikoak erabiliko dituzte, haietarako bakoitzak hartutako sistema eta konponbideen elkarrengarritasun eta segurtasuna ziurtatuta; (...).”*

Erakunde honek, “Administrazio digitala eta herritarrekiko harremanak. Euskal administrazio publikoetako aplikazioa” azterlanean, elkarrengarritasunaren inguruko arazoak mintzatzeko aukera eduki zuen. Zehazki, argitaratutako azterlanak honako hau esaten du:

“(...)Are gehiago, oro har ez dirudi Administrazio publikoak elkarrengarritasun-sistemak erabiltzen dituenik beste administrazio batzuek dauzkaten dokumentuak eskuratzeko, eta horixe da herritarrei irtenbide hobek eskaintzeko eta Administrazioak badauzkan dokumentuak aurkezteak dakarren zama saihesteko arazoaren muintako bat. Nolanahi ere, harrigarria da hainbeste administrazio publikok herritarrei agiriak eskatzen jarraitzea arauen arabera beharrezkoak ez direnean, eskuarki administraziook badauzkaten datuak direlako edo beraiek jardun arduratsuekin egiaztatu ditzaketelako, herritarrek dokumentazio edo informazio hori aurkeztu behar izan gabe”.

Hala, 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 11.4 artikulua ezartzen duenez, eskatzaileek eskubidea dute eskaerarekin eskatutako dokumentu batzuk ez aurkezteko, betiere aurka egiten ez badiote Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak edo Alokabidek elkarrengarritasuneko kontsultak egiteari. Berez ezinbestean aurkeztu behar ez den dokumentazioaren artean, honako hau dago:

“b) Errentapeko etxebizitzan erroldatuta egotearen ziurtagiri eguneratua eta erroldatzearen antzintasuna”.



Kasu honetan, kexagileak ez zuen adierazi ez zegoela ados administrazioak beharrezko informazioa biltzearekin. Are, espedientean ageri den dokumentazioa ikusita, ondoriozta dezakegu halaxe jardun zuela eskatutako hainbat dokumenturekin.

Gainera, administrazioen elkarreragingarritasunak dituen muga teknikoei buruz, adierazi beharra dugu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua ezartzen duela interesdunak bakar-bakarrik zehaztu behar duela noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu zituen orain eskatzen zaizkion datuak edo dokumentuak eta, informazio hori kontuan hartuta, administrazioak lortu behar dituela dokumentu horiek elektronikoki, izan sare korporatiboaren bidez, izan datu-bitartekaritzako plataformen bidez, izan horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez.

Zentzu berean, ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoak eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoak, 9.5 artikuluan, adierazten du prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-organismoak beharrezko datuak edo dokumentuak eskuratu ezin baditu, salbuespenez, interesdunari horren berri emango diola, arrazoa azaldu eta informazioa eman dezan eskatzearekin batera, gero dokumentazioa eskatu ahal izateko.

Azkenik, nabarmendu egin behar dugu administrazioaren esku dauden dokumentuak aurkezteari uko egiteko eskubidea dagoela, administrazio onerako eskubidearen babespean, bat etorrita Euskadiko Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 64. artikuluan xedatutakoarekin.

Hori dela-eta, Arartekoaren ustez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, kexagileari bizileku etengabearen betekizuna egiaztatzeko dokumentazioa eskatu aurretik, aurreko errolda-udalerriei buruzko informazioa eskatu beharko ziokeen. Horrela jokatu izan balu, ez zukeen zuzenketarik eskatu beharko, eta, hortaz, kexagileak ez zukeen izango errolda-agiri ugari aurkezteko zama. Beraz, administrazioak datuak non eskuratu galdetu beharko ziokeen interesdunari, eta ez dokumentazioa aurkezteko betebeharra ezarri zuzenean.

Labur esanda, erakunde honek uste du administrazioak ahalegin handiagoa egin ahal izan zuela hasieran, kexagileak aipatutako betekizuna betetzen ote duen egiaztatzeko orduan.

Neurriz kanpoko ahalegina izatetik urrun, laguntza izapidetzen laguntzeko ahalegin horrek babeska aurkituko zukeen kexagileak edozein administraziok egindako dokumentazioa ez aurkezteko duen eskubidean.

11. Era berean, kexagileari hiru egun eskaseko epean dokumentazioa aurkeztea eskatzeko bidali zioten posta elektronikoa dagokionez, Arartekoak errepikatu





egingo du jokamolde horrek ez dituela betetzen jakinarazpen orori eska dakizkiokeen bermeak¹¹.

Hori dela-eta, Arartekoak gogorarazi nahi du, posta bidezko jakinarazpenek bezala, jakinarazpen elektronikoek ere ziurtasun fede-emailea behar dutela *"tanto del hecho de la recepción del acto de comunicación por el destinatario y su fecha, como del contenido del acto administrativo"* (Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 17ko 6/2019 Epaia)¹². Azken batean, Arartekoaren ustean, jakinarazpen pertsonala egin gabe posta elektronikoa bidaltzeak ez du balio, administrazio-izapidea sustatu nahi badugu.

Gainera, kontuan hartu behar dugu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua berariaz jasotzen duela hamar egun balioduneko epea dagoela eskaerak zuzentzeko.

Hain zuzen ere, laguntzak arautzen dituen 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 13.2 artikulua berak ere hamar egun balioduneko epea ezartzen du.

12. Amaitzeko, Arartekoari deigarri suertatu zaio kexagileak jarritako gora jotzeko errekurtsua ez onartu izana, garaiz kanpo formulatu zela balioetsita. Espedientean jasotako dokumentazioari erreparatuta, behar moduan egiaztatu da errekurritutako ebazpena 2022ko abenduaren 5ean jakinarazi ziotela kexagileari. Halaber, zalantzarik gabe, kexagileak 2022ko abenduaren 21ean jarri zuen errekurtsua. Azken buruan, Arartekoaren ustez, errekurtsua Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122.1 artikulua xedatutako epeetan jarri zen.

13. Azken batean, Arartekoak kexa izapidetu ondoren, behar bezala egiaztatuta geratu da kexagileak 2022ko maiatzaren 20an eskatu zuela Gaztelagun programaren alokairurako laguntza behin-behinean aitortzea, bitarteko elektronikoen bidez. Alokabide sozietate publikoak, ordea, bost hilabete pasatxo beranduago sustatu zuen eskaera, posta elektronikoa bat bidali zionean. Hau da, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkarari eskaera ebazteko eta jakinarazteko emandako epea baino beranduago.

Horrenbestez, aitortzeko eskaera justifikaziorik gabe berandu sustatu izanak bakarrik eragin du kaltea (hots, prestazioa berandu ordaintzea).

Gaztelagun alokairurako laguntzak arautzen dituen deialdiaren arabera, eskaera behar bezala beteta aurkeztu eta hurrengo hilaren lehena izango da prestazioa ordaintzeko eguna. Beraz, ez da onargarria Alokabidek bultzatutako jarduketak

¹¹ **Arartekoa.** Arartekoaren 2022R-1716-22 Ebazpena, 2022ko azaroaren 10ekoa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari gomendatzen zaio bide-azpiegitura bidesaridunak erabiltzeko dirulaguntzak ukatzeko administrazio-prozedurak izapidetu ditzala, administrazio elektronikoaren printzipio eta arauen arabera. Hemen eskuragarri: <https://ararteko.eus/eu>

¹² **Konstituzio Auzitegia.** Urtarrilaren 17ko 6/2019 Epaia. [ECLI:ES:TC:2019:6].



atzeratu izana, eta, kasu honetan, erabakia ebazteko eta jakinarazteko aurreikusitako epea baino gehiago atzeratu dira.

Hori dela-eta, Arartekoak ezin du baliozkotzat jo prestazio ekonomikoaren sortzapena 2022ko abenduaren 1etik aurrerakoa izatea. Beraz, erakunde honen iritziz, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 65. artikularekin, ofizioz hasi beharko lituzke laguntza izapidetzeari izandako atzerapenak eragindako kaltea konpontzeko beharrezkoak diren jarduketak.

Bestalde, Arartekoaren ustez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak arduratsuago jokatu behar du dokumentazioa eskatzeko orduan. Arartekoaren ustean, interesdunari posta elektronikoa bidaltzea ez da modurik egokiena eska daitezkeen berme juridiko guztiekin jakinarazteko eskaera osatu behar duela. Izan ere, uste dugu administrazioak beste bide batzuetara jotzeko aukera izan zuela kexagileak aipatutako betekizuna betetzen ote duen jakiteko.

Hori guztia dela-eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak (erakunde hau sortu eta arautzekoak) 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

Azaldutako guztiagatik, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ofizioz hasi ditzala kexagileari Gaztelagun programaren alokairurako dirulaguntza batengatik sortutako zenbatekoa berrikusteko beharrezkoak diren jarduketak.

Nolanahi ere, adierazitakoari jarraikiz, Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak izapidetzeko Alokabide sozietate publikoari aitortutako ahalmenak egokitu behar al diren azertu beharko luke Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak.

Alokabidek erreklamazio honetan erabili dituen izapide-epeei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak beharrezko neurriak har ditzala, Gaztelagun programaren alokairurako dirulaguntzen izapidea legezkotasun-, eraginkortasun- eta bizkortasun-printzipioekin bat etor dadin.

